

KALDEREROEN 19 KONPARTSA IBILIKO DIRA DONOSTIAKO KALEETAN BARRENA

**Konpartsa tradizionalak Konstituzio plazan jarriko du
kanpamendua, larunbatean, gaueko hamarrak eta laurdenetan**

Guztira, Hungariako Kaldereroen 19 konpartsa ibiliko dira Donostiako kaleetan barrena datozen egunetan, zartaginak joz, txokolate-ontziak konponduz eta Raimundo Sarriegiren abestiak kantatuz.

Aurten Kaldereroen jaia Inauteriak hasi baino 5 egun lehenago ospatuko denez, ospakizun-egutegian nahasteak gertatu dira eta konpartsak egun desberdinetan aterako dira kalera. Hain zuzen ere, konpartsa guztien artean, Loiolakoa urtarrilaren 30ean aterako da; Ikasbidekoa otsailaren 2an; 5 haur-konpartsa otsailaren 5ean aterako dira, ostiralarekin; haur-konpartsa bat eta helduen eta haurren 9 konpartsa otsailaren 6an irtengo dira, larunbatearekin; eta azken konpartsa, otsailaren 12an aterako da, ostiralarekin eta Inauterietan.

Kaldereroen jaia asko hazi da azken urteotan eta gaur egun ia auzo guztietan ibiltzen da konpartsaren bat kalez kale, ijitoz, gurdiz eta hartz tradizionalaz lagunduta. Aurten konpartsa berri bat izango dugu.

Konpartsa kopuru handiena Parte Zaharra, Amara eta Gros auzoek izango dute, hiru konpartsa, hain zuzen ere; jarraian, Egia, Antigua eta Erdialdea daude, bi konpartsaekin. Halaber, Bidebieta, Antigua, Altza, Intxaurren eta Herreran barrena ibiliko dira kaldereroen konpartsak ere.

Konpartsa tradizionala 21:50ean aterako da Fermin Kalbeton kaletik (Ardatza). Konpartsa honetan 346 lagunek parte hartzen dute, horietatik % 40 emakumeak dira eta 18 tributan banatzen dira.

Ibon Otaegi Pérezek zuzentzen duen konpartsa honek, Erregina (Martin Berasategi) eta bere Damak (Iñaki Fernández eta José Ramón Mendizabal "Mendi") izango ditu buru eta Udal Liburutegiko balkoitik zuzenduko zaizkie tribuei. Ohi bezala, gurdia, hartza (Félix Martínez) eta ijito-dantzak, Kresala dantza taldearen eskutik, izango ditu konpartsak. Halaber, Udal Musika Eskolako orkestra ariko da eta 50 kidek parte hartuko dute.

Konpartsak igandeko 01:20ak inguru direnean bukatuko du ibilbidea. Konpartsaren entseguak Orixe ikastolan izango dira 22, 23 eta 24an, eta entsegu nagusia urtarrilaren 25ean, 20:00etan, izango da Udaleko Udaltzako Aretoan.

Aurten, konpartsak Juan Rafael Alday Lasarte omenduko du, arkitekto honek Kontxako Baranda diseinatu zuenetik 100 urte betetzen direla-eta. Horrela, konpartsa tradizionalako Kaldereroek aurten eramango duten txaparen ezaugarria gure hondartzako baranda izango da. Intsignia honen bidez aipatu arkitektoari omenaldia egingo zaio.

Aipatzekoak dira, halaber, Gros, Intxaurren, Altza, Amara, Egia, Loiola, Herrera eta Antigua auzoetako Kaldereroak eta Gehituren konpartsa.

ARTZAIN ETA INUDEEN KONPARTSA IGANDEAN IBILIKO DA PARTE ZAHARREAN BARRENA

1885ean sortua, 1977. urtean berreskuratu zuen Kresala elkarteak

Otsailaren 7an, igandean, jaiari eutsiko zaio Kresala elkartearen eskutik. Izan ere, elkarte horrek Artzain eta Inudeen konpartsa aterako du berriz ere Donostiako Parte Zaharreko kaleetan barrena. Aurten 125 urte beteko ditu.

Konpartsa Euskal Herria kaletik abiatuko da eguerdian eta 150 lagunek osatzen dute; batzuk danborrariak, besteak dantzariak eta baita jaiarekin bat egiten duten bestelako pertsonaiak ere: gotzaina, alkatea, apaiza, elizmutilak, barkillo-saltzaileak, etab.

Sarriegik konposatutako "inudeen konpartsa" piezaren erritmoan dantza eginez, Konstituzio plazara iritsiko dira, eta bertan, bestelako dantzak egingo dituzte, hala nola, kontradantza, zortzikoa, arin-arina, etab.

Artzain eta Inudeen beste konpartsa batzuk ere ibiliko dira gure hirian barrena: Artaiñu- Groseko Artzain eta Inudeen Konpartsa hilaren 7an (Txofre kalean, 11:30ean); Antiguan, otsailaren 20an, larunbata (Alfonso XIII.aren plazan, 12:30ean); eta Amaran, otsailaren 28an, igandea (Amezketan, 12:00etan).

19 COMPARSAS DE CALDEREROS RECORRERAN LAS CALLES DE SAN SEBASTIAN

La comparsa tradicional acampará a las diez y cuarto de la noche del sábado en la Plaza de la Constitución

Un total de 19 comparsas de Caldereros de la Hungría recorrerán en los próximos días las calles de San Sebastián golpeando sartenes, componiendo chocolateras y entonando las canciones de Raimundo Sarriegi.

La circunstancia de que la fiesta de Caldereros se celebre a tan sólo 5 días de Carnavales, ha supuesto un pequeño desajuste en el calendario de celebración, siendo diferentes las fechas en que cada comparsa saldrá a la calle. Así, del total de comparsas, la de Loiola ha salido el día 30 de enero, la de Ikasbide el día 2 de Febrero, 5 infantiles saldrán el viernes día 5 de febrero, 1 infantil y 9 de adultos y niños lo harán el sábado día 6, y la última lo hará el día 12 de Febrero, viernes, en pleno carnaval.

La fiesta de Caldereros ha experimentado en los últimos años un crecimiento importante y en la actualidad no hay prácticamente ningún barrio que no tenga una comparsa recorriendo sus calles, acompañados de zíngaras, carrmatos y el tradicional oso. Este año contaremos con una comparsa más.

Los barrios que contará con mayor número de comparsas serán la Parte Vieja, Amara y Gros con tres, seguidos por Egia, El Antiguo y el Centro con 2. También saldrán comparsas de caldereros por Bidebieta, antiguo, Altza, Intxaurrendoy Herrera.

La comparsa tradicional, saldrá a las 21.50 horas desde la Calle Femín Calbetón (Ardatza). En ella toman parte 346 componentes, de los que un 40% son mujeres, repartidos en 18 tribus.

Dirigida por Ibon Otaegi Pérez, estará presidida por la Reina (Martín Berasategui) y sus Damas (Iñaki Fernández y José Ramón Mendizabal "Mendi") que se dirigirán a las tribus desde el balcón de la Biblioteca Municipal. No faltarán en la comparsa los carrmatos, el oso (Félix Martínez) y los bailes zíngaros a cargo del grupo de danzas Kresala. Intervendrá también la orquesta de la Escuela Municipal de Música con 50 componentes.

La comparsa finalizará su recorrido aproximadamente a las 01.20 horas del domingo. La comparsa realizará sus ensayos los días 22, 23 y 24 en la ikastola Orixe, realizándose el ensayo general en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el día 25 de enero a las 20:00 horas.

Este año la comparsa quiere realizar un homenaje a Juan Rafael Alday Lasarte cuando se cumplen 100 años de la creación por este arquitecto del diseño de la Barandilla de la Concha. Así la chapa que este año distinguirá a los Caldereros de la comparsa tradicional, tendrá como motivo la barandilla de nuestra playa. Esta insignia será el motivo con el que homenajearán al citado arquitecto en la persona de aquí presente.

A destacar las comparsas de Caldereros de Gros, Intxaurreondo, Alza, Amara, Egia, Loiola, Herrera, El Antiguo o la comparsa de Gehitu.

LA COMPARSA DE ARTZAIK ETA IÑUDEAK DEFILARÁ EL DOMINGO POR LA PARTE VIEJA

Creada en 1885, fue recuperada por la sociedad Kresala en el año 1977

El domingo 7 de febrero la fiesta continúa de la mano de la Sociedad Kresala, que volverá a sacar la comparsa de Artzaiak eta Iñudeak por las calles de la Parte Vieja donostiarra que esta edición cumplirá 125 años.

La comparsa, que partirá de la calle Euskal Herria a mediodía, la componen 150 personas, entre tamboreros, dantzaris y los personajes que se suman a la fiesta: el obispo, alcalde, cura, monaguillos, barquilleros...

Bailando a ritmo de la "comparsa de nodrizas" compuesta por Sarriegi llegan a la Plaza de la Constitución donde interpretan otras piezas, como la kontradantza, el zortziko, el arin arin, etc.

Otras comparsas de Artzaiak eta Iñudeak que recorrerán las calles de nuestra ciudad serán: la Comparsa de Artzaiak eta Iñudeak de Gros - Artaiñu el día 7 (calle Txofre 11.30 horas), en El Antiguo el sábado 20 de febrero (plaza Alfonso XIII a las 12.30 horas) y en Amara el domingo día 28 de febrero (Plaza Amezketa a las 12.00 horas).